

# Arrasate

P R E S S

1997ko  
irailak 5  
374. zenb.

A close-up portrait of Jose Mari Loiti, a middle-aged man with dark hair, wearing dark sunglasses and a light blue shirt. He is smiling slightly and looking towards the camera.

## Jose Mari Loiti, alkatea

**“Abuztuaren 7an jende asko etorri zen plenora laguntza adieraztera”**

**“Erabakiak hartzean beldurrak ez du nigan ez besteengan eraginik izango”**

**“HB egon den bitartean gauza garrantzitsu batzuk egin barik geratu dira”**

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
Batetik, kalitate eta diseinurik  
handieneko logelak, garantia osoarekin.  
Bestetik, logela merkeen artean,  
merkeenak.

**BENETAN  
HARRIGARRIA!**


**LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

# RKUZ

## sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaiak  
Betiko muntaiak

**FAGOR** 



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55

# Arrazoiaren indarra versus indarraren arrazoia

**U**rtero lez, jaso ditugu bai ustekabeak herrira iristeaz bat.

Batzuek mundu zabaleko prentsaren bidez jakin dugu Euskal Herrian gertatutakoaren berri. Nere kasuan, Guatemalako bake-prozesuaren garapena zein egoeratan dagoen ikustera joan eta gure herriaren bake-prozesuaren garapen ezaz jabetzeko aukera izan nuen. Hango prentsaren bidez "Vascuña"n bizi naizela jakin nuen, baita milioika pertsona atera zela kalera munduan azken urteotan egin den manifestaldirik handienetarikoa parte hartzera, kondena orokorra izan zela mundu osoan edota autodeterminazioaren aldeko borroka absurdo dela, globalizazioaren mundu honetan ez delako praktikoa eta ezin delako burutu. Komunikabide guztietan eraso bortitza, bideraketa lotsagabea, berez



Karmele Perez

**"Badirudi Blancoren heriotzak legitimatu egin duela sistematikoki bideratzen ari diren sorgin-ehiza"**

justifikaezina den ekintza bat objetiboki aurkezteko gauza ez den prentsaren eredu... informazioaren desinformazioa azken finean. Eta ekintza horrek han halako oihartzuna bazeukan, zer izango ote zen hemen?

Lehenengo erantzuna hegazkinean jaso nuen, eta, berriz ere, prentsaren bidez: alkateari zentsura mozioa

aurkeztu zioten, jakina, erabat legezko eta zuzena. Blancoren heriotzak eskura jarri die eta badirudi legitimatu egin duela sistematikoki bideratzen ari diren sorgin-ehiza, eragiten ari diren borroka

legala eta bultzatzen ari diren borroka soziala. Borroka legal honen ondorioz, Arrasatek beste alkate bat dauka, herriak aukeratu ez duena; borroka sozialari dagokionez, Ermuatik pasatzea besterik ez dago hango euskaldun den guztiari euskaldun izate hutsagatik egiten ari zaion boikota ikusteko.

Zubizarretak plenoan esan zuen bezala, "arrazoiaren indarrari indarraren arrazoia" gailendu zaio.

Azken asteotan, alkate berria azken heroia bailitzan aurkeztu digute prentsak zein telebistak: komunikabideen arabera badirudi Arrasaten "Superman" berria dugula, nahiz eta arrasatear askok ezin irizpiderik asmatu hori legitimatzeko. Kontua zera da: gailentzen den informazioa eta bultzatzen den iritzia alde bakarrekoa eta partziala dela, eta horrexegatik manipulatu dela bihurtzen dela.

Rigoberta Menchú berak uztaileko atentatua kondenatu zuenean, zera esan zuen: "Justizian oinarritutako bakearen bilaketa izango da beti gure konpromezurik handiena". Kontraesana dirudi honek: bere herriak bizi izan duen eta bizi duen egoera ikaragarri eta nahasia ezagututa, eta han dagoen justizia kontzeptutik abiatuta, ez da asko saiatu hemengo justizia ezagutzen azaldu duen irizpide partziala kontuan hartzen badugu.

Eta horixe ari da gertatzen gure inguruan: batzuen interesen arabera ari dira mugitzen eta egiten gauza guztiak. Arrazoiaren indarra, noizko?

**ARKO**  
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Marián Porcel. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 09 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 25). **Disenatzailea:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Unbarren, Fidel Bereizbar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barria. **Banaketa arduradunak:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati). **ARRASATE PRESSek** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:**  
Jon Ruiz de Zarate

Arrasateko Udaleraren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Sallaren laguntza

## 374. zenbaki honetan

1997ko irailaren 5ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..10/12	30 galderatan .....22
Irakurlea idazle .....	6	Oporrak non?.....13/15	Kulturaren txokoa ..24/25
Inkesta.....	7	Aurrez aurre .....	17/19
Euren ikuspuntutik .....	8	Kirolak jokoan.....	20/21
			Foto zaharra .....30

*Ikuspegia*  
**Karmele Perez** .....3

*Kirolak jokoan*  
**Mondraren aurredebordialdia** .....19

*Kulturaren txokoa*  
**Garagartzako elizaren erretaula** ..20

*30 galderatan*  
**Jon Basurko** .....25

*Aurrez aurre*  
**Jose Mari Loiti**  
**alkate berria** .....15/17

Abuztuaren 7an aurrera atera zen Xabier Zubizarretaren aurkako zentsura mozioa, eta beraz, hemendik aurrera Jose Mari Loiti, 59 urteko arrasatearra da herriko alkatea.

5

ostirala

■ ZINEA

La buena estrella. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ GATZAGAKO JAIK

Arratsaldeko 6etan jaien hasiera. 7etan Dorletako Santutegian Bederatziurrena. 7.30etan herri txikiteoa eta gaueko 12etatik aurrera Drindots taldearekin dantzaldia.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Gaueko 9etan kontzertua Arrasateko Gaztetxean. Manufakturas Metalicas (soinu industrialak madrildik) eta Ke Putada (punk-rocka Lasartetik). Manufakturas Metalicas-ek, Like Peter at Home madrilgo taldearen ordez joko dute. Talde biek hainbat musikari konpartitzen dute. AGAKOk antolatuta.

6

larunbata

■ ZINEA

Anaconda. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ GATZAGAKO JAIK

Goizeko 12etan Bostak txarangarekin txikiteoa. 2.30etan herri bazkaria. 4.30etan briska txapelketa eta umeendako jolasak. 6etan pilota partiduak. 7etan Dorletako santutegian bederatziurrena Gorosarri abesbatzarekin. Gaueko 11etan bolo txapelketa. 12etan Trabuko taldearekin dantzaldia. Musika bukatzerakoan txokolatada.

■ EXTREMADURAREN EGUNA

Corazón de Encina taldeko partaideek lagun arteko eguna ospatuko dute Landa-ko urtegiaren. Goizeko 10etatik aurrera jokoak, futbol neurktak eta lehiaketa gastronomikoak izango dira.

7

igandea

■ ZINEA

Anaconda. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ROBERTO SAMPEDRO "PITOTE"-ri OMENALDIA UDALATXEN

Goizeko 10etan Udalatik irteera. 12etan Udalatxek ekitaldia: bertsolariak eta dantzaldiak. Hizlariak: Xabier Zubizarreta eta Tasio Erkizia. Arrasateko Herri Batasunak antolatuta

■ GATZAGAKO JAIK

Goizeko 9.30etan txirringulari lasterketa. Eguerdiko 12etan sari banaketa. Ordubatean herri kirolak. Arratsaldeko 5etan mus txapelketa. 6etan Azkona pailazoak. 7etan Bederatziurrenaren bukaera. 8etan gazta eta ogia Eskoriatzako txistulariek alaituta eta bertsolariak. Gaueko 10etan Kaixo taldearekin dantzaldia.

■ MARIXEKAN ERROMERIA

Aramaioko Marixekako zelaian erromeria. Eguerdiko 12etan meza, ondoren euskal dantzak. Arratsaldeko 3etan bazkaria. 4etan umeendako jolasak eta Joxe Gardokirekin dantzaldia.

8

astelehena

■ ZINEA

Anaconda. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ LUDOTEKAREN IKASTURTEA

Txatxilipurdiko ludotekak atek irekiko ditu. Lehen egunetan sarrera libre. Ordutegia: astelehenetik ostiralera arte arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Larunbatetan 11etatik ordubata arte.

■ GATZAGAKO JAIK

Goizeko 11etan otxandiotarrei ongi etorria. 12etan meza Naroa Enekotegi mezo-sopranoaren emanaldiarekin. Arratsaldeko 4etan umeendako jolasak.

9

asteartea

■ ZINEA

Anaconda. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.



IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MAGISTERITZA

Irakasle Eskolak zera jakinarazi nahi du:

1997-98 ikasturterako iraileko aurreinskripzio-epa zabalik dagoela ondorengo espezialitateetan:

- HAUR HEZKUNTZA
• ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

Aurreinskripzio-epa: Irailaren 8tik 12ra

INFORMAZIOA:

IRAKASLE ESKOLA • Tel.: 71 41 57
20.540 ESKORIATZA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA

Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

## ■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA

Irailaren 15etik urriaren bukaera arte gripearen aurkako txertaketa izango da Arrasaten. Bi talde bereiztuko dira: 65 urtetik gorakoak eta gaixotasunak dituztenak. Txertoa hartzeko anbulategira zuzendu behar da astelehenetik ostiralera goizeko 9etatik 3ak arte. Auzoz auzo irailan zehar egun hauetan egingo da: Irailaren 24an San Andresen, 25ean Abarosan, 26an Uribarrin, 29an Santamainan eta 30an Musakolan. Ordutegia eguerdiko 12etatik ordubata arte.

## ■ JOKIN ZAITEGI ITZULPEN LABURREN SARIKETA

AEDk antolatuta Jokin Zaitegi XI. itzulpen laburren sariketa. Lehaketan edonork har dezake parte. Gaia librea da. Munduko edozein hizkuntzetatik -gaztelaniatik izan ezik - itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Testuaren luzerak gutxienez 15 eta gehienez 30 orrialdekoa izan beharko du. Lanak urriaren 31a baino lehen bidali behar dira helbide honetara: AED Elkarte, Jokin Zaitegi Sariketa. Pablo Uranga kalea, 4 behe. 20.500 Arrasate. Sariak 200.000 pezeta lehenarentzat eta 100.000 pezeta bigarrenarentzat. Informazio gehiagorako deitu 77 12 28 zenbakira.

## ■ GOIKOBALU ABESBATZAREN ENTSAIUAK

Irailaren 9an gaueko 8etan Arrasate Musikale-

ko sokazko tresnen entsaiuak hasiko dira. Irailaren 11n gaueko 8etan San Frantzisko Xabier ikastolaren lokalean Goikobaluren entsaiuen hasiera.

## ■ JULIO GALARTAREN ERAKUSKETA ZARAUTZEN

Irailaren 30a arte Julio Galartaren pintura erakusketara Zarauzko Kayua aretoan. Ordutegia: asteartetik zapatuta arte 11.30etatik ordubata arte eta 6etatik 9ak arte. Jaiegunetan 6etatik 9ak arte.

## ■ MUGARIK GABEKO GAZTEAK VIII. ARGAZKI LEHIAKETA

Parte hartzeko bi maila: A) Deba Garaiko 14-18 urte tarteko gazteak. B) 19-35 urteko edozein. Gaia: mugarik gabeko gazteak. Bi modalitate, koloretan eta zuribeltzean. Argazki guztiak lema batez sinatu behar dira eta gehienez hiru aurkez daitezke. Helbidea: Udaleko Gazte Zerbitzua, Udaletxea, 20.500 Arrasate. Lanak aurkezteko epea urriaren 10ean bukatuko da.



## BIHURRIKEIXETAN IRAILEKO UDALEKUAK

Txatxilipurdik antolatutako udalekuetan 3 urtetik 12 urtera arteko neska mutilek har dezakete parte eta arratsaldean izango dira. Udalekuak erdialdean eta auzoetan izango dira. Txandak: irailaren 8tik 19ra eta irailaren 8tik 26ra. Informazio gehiagorako deitu Txatxilipurdiko zenbakira 79 54 46.

# 978 Ikasturtea

- Oinarriko Ofimatika Windows 95 Ingurua
- Diseinu eta Komunikazio Grafikoa
- Fotokonpozizioa
- Komunikazio eta Sare Lokalak
- Programazio Informatika
- Kontabilitate eta Komertzial Gestio mekanizatua
- Zerga Gestioa PYMES-etan
- Giza Errekurtsoen Administrazioa
- Kanpo Komertzioa
- Mekanografia ordenagailuz
- Laguntasan Klaseak
- Merkatal eta Informatikako Aplikapenak Euskaraz
- Postari Oposaketak
- Planoen Interpretazioa
- Hidraulika
- Neumatika
- Kalitatearen Gestioa
- Internet
- Administrazio Teknikaria
- Administrazio Laguntzailea
- Klinika Laguntzailea

Larunbat  
goizetan ere  
klaseak

## MATRIKULA ZABALIK

LANGAI- Euskal Lan  
Zerbitzura Atsikia

AKADEMIA

# BASTIDA

CENTRO HOMOLOGADO POR EL INEM

Araba Etorb., 3 - 1.a  
ARRASATE-MONDRAGÓN  
Tel.: 79 35 33  
Fax: 79 06 28  
e-mail: bastida@facilnet.es

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 5**  
 • Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.  
 • Gauez: Estella, Bergara.
- Larunbata 6**  
 • Gaueko 10ak arte: Ruiz, Maala.  
 • Gauez: Camacho, Bergara.
- Igandea 7**  
 • Gaueko 10ak arte: Morales, San Andres.  
 • Gauez: Camacho, Bergara.
- Astelehena 8**  
 • Gaueko 10ak arte: Corcuera, Musakola.  
 • Gauez: Mozos, Bergara.
- Asteartea 9**  
 • Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.  
 • Gauez: Estella, Bergara.
- Asteazkena 10**  
 • Gaueko 10ak arte: Ruiz, Maala.  
 • Gauez: Camacho, Bergara.
- Osteguna 11**  
 • Gaueko 10ak arte: Morales, San Andres.  
 • Gauez: Estella, Bergara.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
 Iguualatorioa . . . 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . 79 39 00  
 (emakumeak) . . . 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara . . . 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
 • Espezialitateak . . . 77 05 78  
 . . . 77 12 64  
 Oñati . . . 78 08 52  
 Eskoriatza . . . 79 98 58  
 Aretxabaleta . . . 79 74 58  
 Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantziak . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Oñati . . . 78 04 11  
 Bergara . . . 76 14 69  
 Arrasate . . . 79 14 39  
 Aretxabaleta . . . 79 10 52  
 Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**  
 Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udal taldea . . . 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62  
 Gasas . . . 900 40 05 23  
 . . . 79 78 44  
 . . . 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak . . . 79 12 22  
 PESA . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza . . . 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**  
 Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia . . . 79 58 77

**ARZALLUSI ERANTZUNA**

Aurreko ARRASATE PRES- Aseko aldirian, uztai-laren 24ean, Arzallusek eginiko adierazpenen aurrean, Arrasateko Eusko Alkartasunak zera adierazi nahi dio Arrasateko herriari:

Argi eta garbi utzi nahi dugu, gure hiru zinegotziek orain dela bi urte, Loiti alkate irteteko bozkatu zutela.

Froga ditzala salaketa horiek, gezurrezko adierazpenak alde batera utziz, zeren EAKo zinegotziek inoiz egin ez dutena, PNVko zinegotziek orain dela sei urte, aurreko legealdiaren hasieran egin bait zuten.

Beraz, askoz hobe zenuke zure zinegotzietz galdetu-ko bazenie ea lehen eginikoa orain ere egin duten.

*Arrasateko Eusko Alkartasuna*

**Posta elektronikoa estreinatu dugu**

Horrela nahi izanez gero, irakurle guztiek ARRASATE PRESSEkin harremanetan jartzeko bide berri bat izango duzue hemendik aurrera. Izan ere, teknologia berrien bidean, Internet eta posta elektronikoa aukera zabaldu nahi dizuegu. Oraingoz ez dugu Interneten gune propiorik sortu, baina Interneteko posta elektronikoa erabiliz gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, baduzue aukera. Horretarako, jakina, gure helbide elektronikoa eman behar. Honako hau duzue:

**E-mail: arrasatepress@readysoft.es**

**UMEZAINNTZA HAUR ESKOLAK LANPOSTU HAUEK BETE BEHAR DITU**

■ **AUTOBUSEAN LAGUNTZEKO PERTSONA**

- Euskara ondo menperatu behar du.
- Haurrekin erlazionatzeko gaitasuna.

■ **JANGELARAKO BI LANGUNTZAILE**

- Magisteritza.
- Haur-Hezkuntzan.
- EGA.

Interesatuak Irailaren 9rako Umezaintzan izena eman. San Andres, 8 • ARRASATE • Tel. 79 01 02



**UGARAN jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tfnoa: 79 76 58  
 ARRASATE

**Memesa**  
 79 42 22

**Lore**  
 Lurrindegia  
 Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
 Tel.: 79 52 50

# Zein izan da udako notizia?



**Leire Olea**  
Ikaslea  
(20 urte)

> Nire ustez Arrasateko alkatez eman den aldaketa. Kanpoan nengoen eta telebistaz jarraitu nuen albistea. Harritu egin ninduen notizia hainbeste komunikabidek jasotzea.




**Luis Polo**  
Ikaslea  
(21 urte)

Lady Di-ren heriotza. Uda honetan jende asko hil da istri-puz, baina azken horri eman diote garrantzia, behar bada handiegia.



**Luisa Jurado**  
Etxekoandrea  
(42 urte)

Alkatez eman den aldaketa. Ez nago konforme gertatu denarekin. Txironek jarraitu behar zuen alkate.



**Valentin Mondragon**  
Jubilatua  
(68 urte)

Lady Di-rena. Bapatean horrelako gauza bat gertatzeak harridura sortzen du.



**Estefania Amado**  
Etxekoandrea  
(65 urte)

Pena handia eman dit Lady Di-ren heriotzak. Emakume gazte bat horrela hil izanak tristura ematen du.



**Aitor Urrutia**  
Langilea  
(32 urte)

Alkatearena eta Lady Di-rena. Gehien alkatearen notizia jarraitu dut, bestea sartu egin didate komunikabideek.



**Kontxi Pablos**  
Etxekoandrea  
(43 urte)

Lady Di-rena, oso ezaguna zen eta. Lan humanitarioetan ibiltzen zen, eta gustatzen zitzaidan. Pena apur bat eman zidan notiziak.



**Asier Lasa**  
Ikaslea  
(23 urte)

Eguraldia. Hemen geratu naiz eta eguraldia ez da ondo portatu.

## FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTROA 97-98 IKASTAROA

Oporretatik bueltan, 97-98 ikasturtea antolatzen ari gara. Kurtso hasiera irailaren 29an izango da.

Informazioa jso nahi izanez gero, dei egin geure kontestagailura eta utzi zeure mezua; geuk deituko zaitugu.

Tel.: 79 04 59



famili eta gizarte-  
hezkuntzarako zentruak  
centros de formación  
familiar y social

kutxa fundazioa  
fundación

USTEAK USTE


Izenik gabeko kritikalaria

**I**railak 1, lanerako buelta askorentzat, mendeko astelehen gogorrenetarikoa. Guretako, ez. Etxe honetan lanari aurreko astean ekin genionez, lasai lasai ekin gainera, neure iratzargailua aurtengoagatik libratu da. Eta hori badakidala pilak gastatu artean hor hasiko zaidala goizero belarriondoan pi-pika. Zer egingo zaio ba! tartean loteriarik ez badago langile papera betetzen jarraitu behar.

Eta bete betean pasa den aste honetan sartu gara lanean-sartu gaituzte, hobe esan- lanurte berriko lehen anonimoa iritsi zaigu eta. Poztu gara, udaran ahaztu ez gaituzten seinale.

Ez dakar oraingo honek inongo mehatxurik, ezta irainik ere... gure aurkezleen aingeru irrifartxoan ostean mamu edo deabru ugari ikusten ditu, ez zaizkio iristen zaizkigun gutunak gustatzen, gutxiago gaztetxeroak, nahiago luke ARKO elebiduna, eta gehien izorratu nauena: antipatikotzat nauka, ni naizen sinpatikoarekin. Eskerrak ez dakien Lady Di-renak ez nauela batere hunkitu. Pentsa, erredakzioan bitxo rarotzat naukate.

Beñardo Kortabarria



# Kaixo Pitote!

Xabier Zubizarreta

**O**ndo etorriko jakuan ba hi hemen egotea! Eta urtea igaro denean joan hintzenetik, sarri egin dugun bezala, heure izaera, ohiturak, ateraldiak, ezaugarriak izan dizkiagu hizpide.

Ez haiz ahazterreza; gugan dirauk; eta zein baliagarriak zaizkigun hire irakaspenak; egunerokotasunean emanak; ez huan ordurik, ez egutegirik lanerako, ezetz esateko, maitatzeko, heurretik emateko (hori bait duk egiazki ematea).

Geroztik, jakinean egongo haiz, hemen gertatuen berri; baze-kiagu, Udalatx aldetik jarraitzen diguana; zer moduz portatzen gaittuk?

Dena den hire urteurrena dela eta, kontuak ber-

gogoratu, zer datorkigun behin eta berriz burura; une latzak gaintzeko huan gaitasuna, eta hire barne grina transmititzeko hire armarik onena; HITZA; hitz laua, xumea, ironiaz bete, ulerterreza, beroa, adiskideekin gozoa, etsaiekin zorrotza; hainbeste aldiz ukatzen diguten hitza; ba alferrik ari dituk; alferrik saiatuko dituk guri ahoa estaltzen; geure gorputzeko atal guztiekin jarrai-

tuko diagu, heuk bezala, geure arrazoia aldarrikatzen; ekaitza ari gaituk jasaten baina ondoren jakinean gaudetik, beti bezala Udalatx gaina bistaratuko dela, sendo eta lerdin.

Hori dok eta! ez dik merezi espainol agintariek eskaintzen diguten hondarra hartzea; geuk eraikiko diagu euskaldunoi dagokigun Euskal Herria.

Bueno, autentikuoi! Esandakora; hik Udalatx gainetik kontrolatu; guk hemen behean kornerra zainketan juau eta! Etxak irabaziko duskunik! Auñamendietan dantzetan doun herri bat ei gaittuk, baina hori bai, geure aureskua. Zuri, gorri eta berde garelako.

Xabier Zubizarreta, HBko partaidea da.

**“ Ez haiz ahazterreza; gugan dirauk; eta zein baliagarriak zaizkigun hire irakaspenak ”**

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko erropa**  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

 **MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**  
Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



abuztua bi hitzetan

■ **AEDren auzolandegirik ez**

Aurtengo udan ez da AEDren auzolandegirik egin. Uztailean Senperera joateko auzolandegiak antolatu ziren, baina izenematea jende gutxi egin eta txanda hori bertan behera geratu zen. Abuztuko auzolandegiak, berriz, Senpereko kultur etxean konponketa batzuk egiteko antolatu ziren eta nahikoa lagunek agertu zuten bertara joateko interesa. Hala ere, obrak egiteko baimen bat falta zenez, auzolandegi horri ez zitzaion hasierarik eman.

■ **Elorrioko Udala Kanpanzarrera ez**

Urtero moduan Kanpanzar-

ko erromeria ospatu zen uztailaren 31n, eta Elorrioko Udalak egun horretan ez parte hartzea erabaki zuen. J.M. Fernandez de Arroyabek, Elorrioko alkateak, idatzi bat kaleratu zuen Udalaren erabakia azaltzeko. Bertan esaten zenez, Elorrion jarritako karteekin pentsa zitekeen ospakizun hori HBren ekintza batean bilakatzeko asmoa zegoela. Elorrioko alkatearen ustez, ospakizun hori apolitikoa zen baina karteak ez zuten hori adierazten.

■ **Uribarrin dantza gutxi**

Bartolome Deunaren jaiak ospatu ziren Uribarrin abuztuaren bukaeran. Bertsolarien emanaldiak eta herri

bazkariak arrakasta izan bazuten ere, gauetako dantzaldietan jende gutxi animatu ei zen dantza egiten. Gainontzean, giro ona nagusi izan zen Uribarriko jaietan. Jaietan saldutako txartelen zozketa ere egin zen eta hauek dira zenbaki sarituak: 1.910, 2.001 eta 11. Bi lehenengo sarien irabazleek ez dute oraindik saria jaso.

■ **100 urte Canovas del Castillo hil zela**

Abuztuaren 8an 100 urte bete ziren Canovas del Castillo, Espainiako gobernuburua, Gesalibarko bainuetxean hil zutela. Angiolillo izeneko anarkista italiar batek hil zuen politikari espainiarra.



**ZENTSURA MOZIOAK IKUSMIRA ERAGIN**

Pleno aretoa jendez eta komunikabidez gainezka zegoela onartu zen abuztuaren 7an Xabier Zubizarretaren kontrako zentsura mozioa. Galde erreguen txandan HBko eta EBko zinegotziek hitz egin zuten. HBkoak mozioa ez gauzatzea eskatu zien EAJko eta EAkoei. Abstentzioaren gainean hitz egin zuen, berriz, EBkoak eta baiezkoaren eta ezezkoaren beste balio duela esan zuen. Plenora joandako bi lagunek ere hartu zuten hitza, mozioaren aurkezpenera salatzeko. Alkate kargua hartu bezain laster, batzokian prentsaurrekoa eman zuen Jose Mari Loitik. Kanean bestalde, mozioaren kontrako manifestazioa egin zen.

“*Ingurugiroa zaintzea bizi iraupenerako ezinbesteko baldintza da gizakiarentzat, naturarekiko begirune eta kontzientzia handiagoa beharrezkoak dira, eta horregatik industriak teknologia garbien bidea hartu behar du, luzera kostoa baino aurrezpena dira eta.*



*(...) elkarlanaren estrategia bakarra da errekursoak aurrezteko orduan isurkin gutxiago sortuko duen prozesu teknologiko garbi baten bidean.*

*(...) Dena dela, gaur egun 0 kutsaduraz ekoiztea erabat ezinezkoa da”.*

**ESTHER LARRAÑAGA**

Deia  
1997-8-28

**ZUBIZARRETA TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 79 15 65

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 79 01 82

**ITSASKI**  
ARRANDEGIA

**Arrain freskoa eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94



**ARRASATE  
KIROLAK**

# KLUB

Orain kirol berrikuntza guztien berri izango duzu!  
ARRASATE KIROLAK KLUBaren bazkide egin zaitez!  
Abantailak ugariak izango dira!  
Informaziorik berriena, eskaintza bereziak, zozketak, lehiaketak,...



**Kirola egiteko ekipoen berrikuntza eta garapenaren berri emango dizugu dohainik.**

**Bazkide izatean, Arrasate kirolak-eko materialaren zozketa berezietan parte hartuko duzu!**



**Oso erraza eta dohainekoa da geure bazkide izatea! Behealdean daukazun kupoia bete eta geuri bidaltzea besterik ez daukazu!**



Izena .....

Abizena .....

Adina ..... Tel. ....

Helbidea .....

Egiten duzun kirola .....

# Gaurko plenoan jakinarazi dira gobernu batzordeko kideen izenak

Legeak dioenez, alkate berria izendatu eta 30 egunera plenoa egin behar da udaletxe-ko kargu politikoak noren esku geratzen diren jakitera emateko, eta pleno hori gaur egin da goizeko 9etan. Gaurkoa, hala ere, ostiral batean egin den azken plenoa izan da; hirukoak erabaki duenez hemendik aurrera astelehenera eta goizeko 9etan egingo dira eta.

Plenoak aurrerantzean astelehenera egingo direla jakinarazteko balio izan du gaurkoa, baina baita izendapenen berri emateko ere. Alde batetik, gobernu batzordean zein zinegotzi egongo diren esan da. Hiru alderdietatik, bakoitzetik bina zinegotzi egongo dira astelehenera egingo diren gobernu bileretan. Bestetik, alkateorde Jabier Aresti jeltzalea izendatu dute; Blanca Roncal sozialista Iturbide egoitzako zuzendaritza batzordeko lehendakaria; eta AUKE-Ako zuzendaritza batzordeko lehendakaria Andoni Kepa

## Udal batzordeen banaketa

- **Hirigintza batzordea** .....Jose Mari Loiti (**EAJ**)
- **Hazienda batzordea** .....Jabier Aresti (**EAJ**)
- **Kultura eta kirol batzordea** ..... Itxaso Garai (**EAJ**)
- **Euskara batz.** .....Andoni Kepa Bedialauneta (**EAJ**)
- **Emakumearen batz.**.....Mari Angeles Iñurritegi (**EAJ**)
- **Pertsonal eta lan batzordea** ....Paco Garcia (**PSE-EE**)
- **Ongizate batzordea** .....Blanca Roncal (**PSE-EE**)
- **Ingurugiroa** .....Ignacio Jimeno (**PSE-EE**)
- **Auzoetako batzordea** .....Ismael Gonzalez (**PSE-EE**)
- **Zerbitzu batzordea** .....Isabel Gallastegi (**EA**)
- **Hezkuntza batzordea** .....Jabier Nafarrate (**EA**)
- **Gazteria batzordea** .....Juan Antonio Barriocanal (**EA**)

## Gobernu Batzordeko kideak

- **Jose Mari Loiti** (EAJ)
- **Jabier Aresti** (EAJ)
- **Ignacio Jimeno** (PSE-EE)
- **Blanca Roncal** (PSE-EE)
- **Isabel Gallastegi** (EA)
- **Juan Antonio Barriocanal** (EA)

Bedialauneta (EAJ).

Bukatzeko, batzordeak sortu eta batzordeen egutegia fin-

katuko da. Azken bi urteetan

10 batzorde egon badira ere, hiru alderdiek kopurua gehi-


tzea erabaki dute. Hemendik aurrera beste bi batzorde berri egongo dira: lan batzordea (azken hau pertsonal sailarekin batera) eta ingurugiroarena. Azken horrek, hala ere, ez du batzorde kategoriatu eduki-ko. Gaurko plenoan, hala ere, ez dira batzordeburuen izenak ezagutzera emango. Lehenengo batzordeak sortu, eta ondoren lehendakariak izendatuko dira. Izendapen horiek asteazkenean egingo dira.

Beraz, Euzko Alderdi Jeltzaleak bost zinegotzi ditu eta bost batzorderen ardura hartuko du. Lau zinegotzi ditu, berriz, alderdi sozialistak eta lau batzorde zuzenduko ditu. Azkenik, hiru dira Eusko Alkartasunako zinegotziak, eta hiru batzorde zuzentzearekin arduratuko dira.

Gaur udal taldea eratuta eta kargu politikoak izendatuta geratu dira. Behin hori eginda, lanari ekingo diote. Astelehenera, gobernu bilerak egingo dira eta horrez gain, batzordeak dagokien egunetan.

**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**  
Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

 **CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS  
"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"  
97/98 ikasturtea  
**MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK**  
Alemana, Frantsesa eta Ingelesa.  
Haur, gazte eta helduendako klaseak eta orain ere  
"MULTIMEDIA" Sistema eskaintzen dizuegu.  
INFORMAZIOA  
Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE  
Tel.: 71 20 55  
Olakua, 14 • OÑATI  
Tel.: 71 60 00

**BASABE JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta bankekek  
Tel.: 79 91 84  
ARETXABALETA

MARIANO ANDRADE SIGANO  
**TAXIA**  
24 orduko zerbitzua  
Hotelak / Aireportua /  
Ospitaleak...  
Tel.: 79 96 87 • Tfno mobila: (907) 75 23 85  
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

## Jaiotzak

- Xabier Ramos Zubia. Uztailaren 17an.
- Maider Elorza Prado. 20an.
- Mikel Mondragon Buruaga. 23an.
- Jone Uribesalgo Manunacelaya. 25ean.
- Miren Uribarren Amozarrain. 29an.
- Florencia Peña Giusti. Abuztuaren 2an.
- Joseba Pierruges Mancebo. 3an.
- Mikel Aranbarri Zuazubiskar. 4an.
- Unai Salaberri Merino. 6an.
- Paula Quintanilla Garcia. 7an.
- Mikel Elizaran Ayesa. 14an.
- Leire Azkarate Badiola. 20an.
- Uxue Okina Mondragon. 20an.
- Josu Barreiro Barrena. 21ean.
- Eider Altube Kazalis. 21ean.
- Nekane Romero Gil. 21ean.

## Hildakoak

- Francisco Cobos Rubio. Uztailaren 27an. 58 urte.
- Irene Etxebarria Berezibar. 30ean. 82 urte.
- Juana Marquinez Imaz. Abuztuaren 1ean. 90 urte.
- Guadalupe Altube Aranguren. 7an. 69 urte.
- Daniel Barrutiabengoa Gallastegi. 17an. 90 urte.
- Elias Lonbide Gastañaga. 19an. 75 urte.
- Eugenia Agiriano Argarate. 20an. 84 urte.
- Maria Soledad Uranga Arregi. 22an. 75 urte.
- Angel Fernandez Arroyo. 25ean. 64 urte.



Gero eta zahar gehiago dago Deba Garalan.

# Zentro psikogeriatrikoa irekiko du Aita Mennik Uribe auzoan

Aita Menni ospitalaren ekimenez, eguneko zentro psikogeriatrikoa zabalduko da laster Arrasaten. Orain dela urtebete aurkeztu zuen Aita Mennik zentroa irekitzeko proiektua, baina orain arte ezin izan da gauzatu.

Hasiera batean, Uribe auzoan ospitaleak dituen lokaletan zabalduko da zentroa, eta 15 bat gaisorendako tokia egongo da. Aurrera begira, berriz, beste bat izango da zentroaren kokapena. Hori bai zentroa Arrasaten egongo da, eta lokalak herri-

ko udalak utziko ditu. Arrasateko udaletxean zentroa zerrajeran egon daitekeela pentsatu dute, eta baliteke horri lokalak uztea. Hala ere, Aita Mennikoen eta Udalaren artean ez da horri buruz hitz egin, eta beraz, akordiorik ez dago. Bestalde, Diputazioarekin ere hartuemanen ari da Aita Menni. Oraingoan, Foru Aldunduekin ere ez dago idatzizko akordiorik baina lortu ei dute berbazkoa. Horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza ekonomikoa emango du zentro-

an ingresatuko duten gaisorendako.

Zentro psikogeriatrikoa dementziaren bat duten zaharrendako izango da, esaterako, alzheimer gaisotasuna dutenendako, eta goizeko 9etatik arratsaldeko 6etara egongo da zabalik. Beraz, zentroa egunez egongo da irekita. Deba Garaiko edozein gaiso edadetuk izango du bertan ingresatzeko aukera, eta aukeraketa udal-txetako gizarte laguntzailerek izango duten zerrendatik egingo da.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 79 13 78



**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

# Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Arrasateko Udal Euskaltegira!



## 1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

### Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta  
EGA maila guztiak

### Erritmoak

2, 3, 4 eta 5 ordu egunero

Beka sistema daukagu

### Bulego ordutegia

Goizez: 10.00-13.00

Arratsaldez: 15.00-19.00

### Matrikulaldia

Irailaren 1etik 17ra arte

### ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2  
ARRASATE

Tel.: 79 70 77 - 79 77 88



**NISSAN**



**Hau da zure jendea, hau da zure etxea.**

**Aldibi**

**Aldibi Autoak, S.A**

Zigorrola, 1

ARRASATE

Tel.: 71 20 02

Faxa: 79 65 65

**Hemen zure amets guztiak egon daitezke.**



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Co-Car, S.A.




Mazda

Musakola Autoak, S.A



Nissan

Aldibi Autoak, S.A



## ELKARTASUN BIDAIA

Mango ederrak aurkitu zituen Jose Manuel Corcuera Nikaragua aldean. Hala ematen badu ere, ez zen mangoak batzera joan. Berak eta Oskar Saizek, ordenagailu tailer bat ipini zuten martxan. Dirianba hiri inguruko asentamentu batzuetan. Arrakastatsua tailerra hasteko, 18 ikasle izan zituzten eta.



## INGELES IKASTERA JOAN ETA PRIMERAN PASATU!

Nagore Llodio Floridan izan da uztailean ingelesa praktikatzen. Estatu Batuetako famili baten etxean egon da arrasatearra eta primeran pasatu ei du. Argazkian Walt Disney World-en dago. Zelako inbidia!



## HUELVAKO ROCIORA

Al-andalusekoak Rocioko amabirjinaren jarraitzaile finak dira, eta oporretan ere Rocioko amabirjinaren ermita bisitatzera joan ziren. Argazkiko ermita Huelvan dago, Almonte herrian. Horrez gain, hauek ere Jesulin toreatzailearen etxea goitik behera bisitatu zuten. Hori jakina, Cadizen.

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 79 20 56

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11  
ARRASATE

**SIRIMIRI**  
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42  
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

## ZELAKO ZORTEA!

Oporretan asko izaten dira aurpegi ezagunen batekin topo egiten dutenak. Iaz Mister España izan zen mutila topatu zuen Nerea Urrutiak Granadan eta zelan ez, berarekin argazki bat atera zuen. Nork ez luke berdina egingo!



**Rent a Car**  
Alkilerreko autoak:  
Twingo, Clio, Mégane,  
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

**MECA**



## MENTAZKO TEA ZEIN GOZOA!

Juanina Garai, Mondra emakumezko taldeko entrenatzailea, Senegalen egon da abuztuan. Hamabost egun igaro ditu eta bertara joatea merezi duela dio. Juaninari hegoaldea gustatu zaio oraindik ez dagoelako guztiz esplotatuta. Entrenatzaile honek mentazko tea edateaz gain, bertako bizilagunekin futboleko jokatzeko aukera ere izan du. Oporretan ere ezin baloia ahaztu!



## JESULIN-EN ETXEAN

Hurrengo udan Cadizera doanak jakin dezala Jesulinen etxea ikusteko txirrinen jo baina ez dela egin behar. Arantzazu Lagunillak eta bere lagunak horixe egin zuten eta etxe barruko gelak

kenduta, beste guztia erakutsi zieten, baita tigreak ere. Toreatzailearen etxea bai baina Jesulin Gasteizen ei zegoen toreatzen. Hangoak hemen eta hemengoak han!

Jose Mari Loiti

# Alkate berria

**A**buztuaren 7az gerotik Arrasateko alkate berria da EAJko Jose Mari Loiti. 59 urteko arrasatear hau ia bi urtez egongo da alkatetzan, eta denbora tarte horretan EAren eta PSE-EEren finkatutako proiektuak aurrera eramaten ahaleginak egingo ditu. Alkatetzak dedikazio osoa eskatzen duela eta, orain arte eduki duen lana uzteko erabakia hartu du maisu industrial honek.

**- Zer moduz alkatetzan egin dituzun lehenengo egunak?**

- Trankil, arazo barik. Gauza asko dago egiteko, eta orain hiru alderdien artean gobernu taldea osatu eta lanean hasiko gara.

**- Zerbait aldatu da zure bizitzan alkate zarenetik?**

- Gaur egungo egoeran alkate izateak aldaketa ekartzen du. Arrasateko alkatetzak erabateko dedikazioa eskatzen du, eta horren eraginez gauza asko aldatzen da.

Orain arte Oñatiko enpresa batean ibili naiz lanean, beraz, logikoena lan hori utzi eta Udaleko lanari heltzea da.

Denbora tarte batean bi lanetan jarraitu beharko dut, baina argi dago Udalak dedikazio osoa eskatzen duela.

**- Oporrik hartu duzu?**

- Beti moduan Bastidan

pasa ditut egun batzuk. Opor gutxi eduki dut, Udaletxean eta lantegian egon behar izan naizelako lanean baina horrek berdin dio.

**- Zer moduz joan zen abuztuaren 7a?**

- Erabat atipikoa izan zen egun hori. Plenoa nahiko lasaia, jendearen laguntza sentitu genuen bakarrenetarikoa izan zen. Jende asko etorri zen plenora laguntza adieraztera. Bestalde, garrantzi handia eman zitzaion pleno hari eta komunikabide ugari etorri zen. Banekien komunikabide asko etorriko zela, baina ez nuen uste hainbesterako izango zenik. Hurrengo bi egunak komunikabideei erantzuten pasa nituen.

**- Zure kontrako oihuak entzun ziren plenoan eta txaloak ere bai.**

- Tamalez ohiko oihuak

egon ziren baina txaloak ere bai. Txaloek harritu ninduten gehien, eta jende horri esker nahi diot emandako konfidantza. Guretako garrantzitsua da arrasatearren laguntza dugula jakitea.

**- Kanean zer esaten dizute?**

- Kanean ere txalo ugari jaso nuen. Bestalde, jende askok eta bihotz-bihotzez esan dit pozik dagoela ni alkate naizelako.

**- Telefono dei edo mezu berezirik jaso duzu?**

- Erakundeetatik dei asko jaso dut, baina telefono dei bat berezia izan zen. Nik soldadutza Melillan egin nuen orain dela 38 urte, eta soldadutzako lagun batek deitu zidan guztiz emozionatuta. Bitxia izan zen, soldadutza bukatu nuenetik ez nuen lagun horrekin hitz egiten eta.

**- Zergatik ez da lehenago aurkeztu zentsura mozioa?**

- Alderdi batek pentsatzen zuelako ez zela une egokia. Orain ikusi du momentua zela eta aurrera atera da. Hala ere, hirukoa osatzen dugun alderdiok astero bilera horietan guretako garrantzitsuak ziren gaien jarraipena egiten genuen. Beraz, ildo nagusienak finkatuta ditugu eta horiek aurrera eramaten ahaleginduko gara hemendik aurrera.

**- Arrasateko alkate izateko zein ezaugarri behar dira?**

- Lehenik eta behin alkate horrek gehiengo garrantzitsu bat izan behar du bere alde. Bigarrenik, alderdi desberdinekin lan taldea osatzeko gai izan, eta talde horrekin lan egiten jakin. Hirugarrenik, herriaren beharrak aztertu eta horiek aurrera eramane behar ditu.

**- Komunikabide gehienek beldurragatik galdetu dizute eta zuk baietz, beldurra duzula erantzun diezu.**

- Gai horretan sakondu nahi nuke. Zentsura mozioa aurkeztu genuenean komunikabide askok galdetu zidaten beldurraren gainean. Kontestu horretan nik baietz erantzun nien, baina zentsura mozioa aurkeztu genuen

**“Orain arte Oñatiko enpresa baten ibili naiz lanean, baina, logikoena lan hori utzi eta Udaleko lanari heltzea da”**

**“Jende askok eta bihotz-bihotzez esan dit pozik dagoela ni alkate naizelako”**





JON RUIZ DE ZARATE

guztiengatik ari nintzen berbetan. Beldurra nuela esan nuen, momentu hartan ez nuelako guztiz garbi ikusten jarritako helburuak lortuko ote nituen. Beldur fisikoari dagokionez, pleno batzuetan gertatutakoa baino ez da gogoratu behar. Pleno batzuetan beldur fisikoa sentitu dugu guztiok. Hala ere erabakiak hartzean beldurak ez du nigan ez besteengan eraginik izango.

**“Pleno batzuetan beldur fisikoa sentitu dugu guztiok. Hala ere erabakietan ez du eraginik izango”**

**“Lehenago ez da aurkeztu zentsura mozioa alderdi batek pentsatzen zuelako ez zela momentu egokia”**

**\_ Beldurra dela eta neurririk hartu duzu?**

- Uste dut ez dela erantzun beharreko galdera.

**- Lana utziko duzu alkatezari heltzeko. Beste zinegotziren batek ere egingo du berdina?**

- Gure ustez handiagoa izan behar da politikoen presentzia udaletxean. Udal hauteskundeetan esan genuen zinegotzi batzuk udaletxeko beharretara zuzentzea beharrezkoa zela. Hori horrela izatea espero dugu, baina ez berehala. Datorren urteko aurrekontuetan asmo hori jasoko dugu, Arrasaterendako ezinbestekoa da eta.

**- Gobernu batzordean EAJ-ko, PSE-EE ko eta EAKo zinegotziak egongo zarete bakarrik?**

- Gobernu batzordea eraituta dago, eta printzipioz hiru alderdi horietako kideak egongo gara. Guztira sei kide egongo gara astelehenetako gobernu bileretan. Alderi bakoitzeko bi zinegotzi.

Guregatik beste bi alderdiek (HBk eta EBk) esan dituztenak kontuan izanik, horiek gobernu taldean sartzea ez da egokia.

**- HB zergatik ezin da gobernu taldeko partaide izan?**

- HBk oposizioaren aurrekontuak onartu behar izan zituen 96an, eta horren aurrean esan zuten eurek ikusiko zutela aurrekontu horiek aurrera eraman ala ez. Ondoren, bakarrik geratu ziren gobernu taldean. HBk alkatetza kentzea leporatzen digu, baina eurek ez dute lortu EBkoak gobernu taldean edukitzea ere.

Nire iritziz alderdi horrekin ezin da taldean lana egin. Eurak geratu dira kanpoan.

**- HBko botoemaleak uda-**

**letxetik kanpo uzteak zein ondorio ekar dezake?**

- Nik galdera alderantziz egingo nuke. Zergatik egon dira bi urtez ia 9.000 botoe-male kanpoan? Arrasatear guz-tien alkate izaten ahalegindu-ko naiz.

**- Plenoak orain arte moduan ostiraletan egingo dira?**

- Lehenago ere eskatu genuen plenoak ostiral arratsaldetan ez egitea. Ohiko plenoetara oso jende gutxi etortzen da, eta beraz, plenoak egiteko eguna aldatzea erabaki dugu. Astelehenetan, goizeko 9etan egingo dira plenoak.

Bestalde, bozeramaileen batzordea eratuko dugu presazko gaiek berehalako erantzuna izan dezaten.

**- Azken 10 urteetan HBk izan du alkatetza. Zein nota jarriko zenioke Xabier Zubizarretari?**

- Nik ez diot notarik jarriko. Herritarrek badakite zer egin den. Nire ustez HBk jarri behar dio nota hemendik aurrera. HBk ahalik eta ondoen egingo zuen lan, eta esango nuke ez duela gaizki egin. Etorkizunak esango digu ondo edo oso ondo egin duten. Hala ere uste dut, HB egon den bitartean gauza garrantzitsu batzuk egin barik geratu direla. Denborak esango du.

**- Udala gestionatzeko modua aldatu egingo duzue?**

- 96ko aurrekontuetan aurreratu genuen Udala berrantolatu beharra zegoela. Lehenengo Udalak zelan funtzionatzen duen ikusiko dugu, eta ondoren finkatutako helburuen arabera, zein antolaketa behar den zehaztuko dugu. Politikariek eta udaletxeok herritarren zerbitzura egon behar dute, eta uste dut ez dela hori arrasatear gehienek duten pertzepzioa.

**- Zuek alkatetza hartuta herritarrei udaletxe-ko informazioa ezkutatu zaiela esan da.**

- Hori argumentu politiko bat da, eta ez dut joko horretan sartu nahi. Niri galdera bat datorkit burura: zein informazio utzi dit alkate ohiak? Alkate ohiaren bulegoan informazio gutxi aurkitu dut.

Talde bat izan behar gara la esaten badugu, argi dago zinegotzi gehienok egongo gara la informatuta. Udaletxe-ko dokumentu guztiak eskura daude, beraz informazioa dagoena da.

**- Ia bi urte egingo dituzu alkatetzan. Tarte horretan zertan ahaleginduko zara?**

- Finkatuta dugun programa betetzen. Alde batetik hirigintzako plan orokorra bukatu, atzerapen garrantzitsua darama eta. Bestalde, Zerrajerako orubearen plana bukatu, gai horri ere berandu heldu zaio eta. Horrez gain, aurrekontuetan aurreikusita dauden proiektuak aurrera eramango ditugu: frontoiarena... Langabeziaren arazoari ere garrantzia emango diogu. Ildo horretatik aipatuko nuke seguruen irailaren 25ean inauguratuko dela Enpresa Berritzaileen Zentroa (CEI).

**- Ospital zaharrean kultur etxea egin nahi dela eta, lortu ei duzue akordioa frantziskotarrekin.**

- Momentu honetan Udalarekin izandako azken bilerako aktaren zain daude frantziskotarrak, baina aurre akordioa lortu dugu. Akordio horretan gaindituta geratzen dira zeuden arazo guztiak. HBk noizbait esan du ezin dugula negoziatu eta hori gehiegi da. Zinegotzi guztiok dugu negoziatzeko aukera. Beste gauza bat da negoziazio horiek aurrera eramateko gai garen. Bes-



JON RUIZ DE ZARATE

**“Hemendik aurrera astelehenetan, goizeko 9etan, egingo dira udal plenoak”**

**“Udalak zelan funtzionatzen duen ikusi eta zein antolaketa behar den zehaztuko dugu. Politikariek eta udaletxeok herritarren zerbitzura egon behar dute, eta uste dut ez dela hori arrasatear gehienek duten pertzepzioa”**



**“Udalarekin izandako azken bilerako aktaren zain daude frantziskotarrak, baina aurre akordioa lortu dugu. Akordio horretan gaindituta geratzen dira zeuden arazo guztiak”**

**“1997ko udal aurrekontuetan finkatu zenetik zer egin den ikusten ari gara, eta egia esan gutxi egin da”**

talde, nahiz eta kultur etxea-rena 97ko aurrekontuetan dagoen, une honetan ez dago proiekturik lanean hasteko. Proiektua orain dela urte batzuk egin zen, baina hainbat aldaketa gertatu denez berriro egin behar da.

**- Kirolari buruz zer aipatuko zenuke?**

- Orain Musakolako kiroldegian obra batzuk egiten ari dira, baina konponketekin aurrera jarraitu baino lehenago, etorkizunerako kirol politika zehaztu behar da. Era horretan, zein ekipamendu behar diren finkatuko genuke.

Frontoiaren gaiak, bestalde, guztiz harritzen nau. Ez dakit zergatik dagoen egin barik. Zeintzuk dira horren arrazoiak? Jende askok zin egin zuen 95ean eraikiko zela, eta ez da horrela gertatu.

**- Zerbitzu sailari dago-kionez?**

- Sail hori oso garrantzitsua da herriarendako eta dedikazio berezia eskatzen du. Zerbaitek ez badu ondo funtzionatzen segituan igartzen du herritarrak, eta horregatik sail hori kontuan izan behar da. Arrasatek lorategi politak ditu baina herria zikin egoten da, bai hormak eta baita kaleak ere.

**- Euskarari buruz?**

- Euskara laguntzen jarraituko dugu, indarrarekin gainera. Alor horretan Arrasate aintzindaria da hainbat gauzetan, eta horri eutsiko diogu.

**- Lur industrialia erosi duzue. Noiz ikusiko dira emaitzak?**

- Lur industrialia erosi genuen prebentzio modura. Hau da, une jakin batean norbaitek lur industrialia eskatzen badu gertu edukitzeko. Deba Garaian industrialdea ez duen herri bakarra da Arrasate, eta hori nola gainditu ikusi behar da. Erreserba modura dago lur hori, badaezpada ere.

**- Une honetan zer duzu eskuartean?**

- 97ko aurrekontuetan finkatu zenetik zer egin den ikusten ari gara, eta egia esan gutxi egin da. Bestalde, Eguneko Zentro Psikogeriatrikoaren gaia-ekin nabil. Proiektua 25 lagunendako da eta seguruen Zerrajeraren ezkerrean kokatuko da Aita Mennikoen zuzenduko duten zerbitzu hori. ■

-----  
**Maria Agirre**

# Preferente mailako Mondra 1999

## ATEZAINAK

- **Dabid Luri** 21 urte, arrasatearra. Ondo kokatzen da eta bizitasuna dauka. Hala ere, irteeretan ez da fin ibiltzen.
- **Oscar Sanchez** 19 urte, arrasatearra. Kokapen ona eta goitik ondo moldatzen da, baina esperientzia falta zaio.
- **Juan Carlos Donoso** 20 urte, arrasatearra. Ausarta eta bizia da. Preferentean esperientzia falta.

## ATZELARIAK

- **Asier Lopez** 23 urte, arrasatearra. Markatzaile ona eta indartsua da, baina odol beroegia du.
- **Aritz Arabiourrutia** 20 urte, arrasatearra. Teknikoa, ideia garbiak eta polibalentea. Konfiatuegia askotan.
- **Asier Luengo** 20 urte, arrasatearra. Kontzentrazio ona dauka, akaso urduriegia da.
- **Eduardo Zulueta** 26 urte, eibartarra. Jokoa ondo kontrolatzen du eta indarra dauka. Dena dela batzutan kontzentrazio falta du eta odol beroegia da.
- **Mikel Larrañaga** 20 urte, arrasatearra. Markatzaile ona da eta baloia erraz mugitzen du. Hala ere zelaian inpultsiboa da eta gauzak hobeto pentsatu behar ditu egin baino lehen.
- **Joseba Garai** 20 urte, arrasatearra. Langile fina, baina mailara egokitu beharra dauka.

## ERDILARIAK

- **Ruben Rueda** 22 urte, arrasatearra. Behar bada taldeko jokalaria polibalenteena eta konpletuena da. Akats bat lider nortasunik ez duela.
- **Gonzalo Espel** 22 urte, arrasatearra. Teknikoa eta langilea da zelaian, baina ideiak gehiago argitu behar ditu jokaterakoan.
- **Beñat Apraiz** 23 urte, arrasatearra. Teknikoa, kalkulatzailea eta dena ematen saiatzen dena. Hala ere jokalaria hotzegia izaten da sarri.
- **Jon Ander Errasti** 20 urte, eskoriatzarra. Teknikoa eta klase handiko jokalaria. Partiduetan kontzentrazioa falta zaio eta hotzegia da.
- **Argider Arana** 19 urte, arrasatearra. Baloiak lapurtzen trebea da eta teknikoa. Akaso partiduan sartzea nahi baino gehiago kostatzen zaio.
- **Igor Tola** 21 urte, arrasatearra. Jokoa argi ikusten du baina defentsan hobetu beharra dauka.



- ka. Konfidantza hartzeko partiduak behar ditu.
- **Agustin Calleja** 22 urte, arrasatearra. Errematatzaile ona da eta jokoa argi ikusten du. Nolanahi ere batzutan ez da partiduan sartuta egoten.
  - **Alberto Matalobos** 19 urte, arrasatearra. Oso azkarra da. Dena dela, jokoa ideiak argitu behar ditu.
  - **Rafa Garcia** 20 urte, arrasatearra. Jokalari erasokorra eta azkarra. Jokatzeko orduan hala ere, ideiak gehiago argitu behar ditu.
  - **Unai Baena** 19 urte, arrasatearra. Teknikoa da baina indar falta dauka eta mailara egokitze-ko lan gehiago egin behar du.
  - **Pello Altube** 20 urte, arrasatearra. Toke ona du eta azkarra da baina mugikortasuna falta zaio.
  - **Richard de Castro** 20 urte, arrasatearra. Langilea izan arren, Preferentean toki bat hartzeko beste-ak beste esperientzia behar du.

## AURRELARIAK

- **Oxel Apraiz** 20 urte, arrasatearra. Azkarra eta indartsua da. Beharbada nahi baino gehiagotan paperak galtzen ditu.
- **Gorka Otxoa** 26 urte, arrasatearra. Azkarra da eta bere betetaria igerri egiten da, nahiz eta defendatzeko orduan hobetu beharra izan.
- **Raul Leiba** 23 urte, arrasatearra. Gogoa jartzen du eta indartsua da. Gainera atzean zein aurrean joka dezake. Hala ere errazegi galtzen du morala.
- **Oscar Santor** 19 urte, arrasatearra. Oso inteligentea eta teknikoa jokatzeko orduan, baina erregulartasun falta dauka.

# 98 denboraldiari begira

## Altak



Oscar Sanchez




Joseba Garai



Mikel Larrañaga



J. Carlos Donoso



Unai Baena



Rafa Garcia



Richard de Castro



Pello Altube

## Bajak

Juan Luis Aranburuzabala, Igor Areitio, Jon Pildain eta Xabi Esparza.

## Partiduen egutegia

97-9-7 • 98-1-18  
Oartzun - Mondra

97-10-12 • 98-2-22  
Mutriku- Mondra

97-11-16 • 98-3-29  
Mondra - Eibar

97-12-21 • 98-5-10  
Zestoa- Mondra

97-9-14 • 98-1-25  
Mondra - Ordizia

97-10-19 • 98-3-1  
Mondra - Roteta

97-11-23 • 98-4-5  
UDA - Mondra

97-12-28 • 98-5-17  
Mondra - Anaitasuna

97-9-21 • 98-2-1  
Mondra - Beti Ona

97-10-26 • 98-3-8  
Urola- Mondra

97-11-30 • 98-4-19  
Mondra - Zarautz

98-1-4 • 98-5-24  
Real union - Mondra

97-9-28 • 98-2-8  
Pasajes - Mondra

97-11-2 • 98-3-15  
Mondra - Lazkao

97-12-7 • 98-4-26  
Trintxerpe - Mondra

98-1-11 • 98-5-31  
Mondra - Aloña Mendi

97-10-5 • 98-2-15  
Mondra - Beti Ona

97-11-9 • 98-3-22  
Euskalduna- Mondra

97-12-14 • 98-5-3  
Mondra - Hondarribia

## ESKUBALOIA Eskubaloi lau talde Arrasaten

Gizonezko Kadete, jubenil, senior eta emakumezko jubenil mailako taldeak izango ditu aurten Arrasate eskubaloi taldeak. Seniorren taldea osatzeko territorialeko jokalariek hartu dituzte eta hauentzat irailaren 28an hasiko da liga. Kadetetan berriz, jende bila dabilta. Beraz 82-83 urtetan jaiotakoak Iturripeko kiroldegira zuzendu daitezke astelehenetik ostiralera arte arratsaldeko 7etan entrenamenduko arroparekin.

## RUGBYA Astean bi bider entrenatu

Senior taldekoak hasi dira asteartean eta ostegunetan entrenamenduekin. Musakolako kiroldegian elkartzen dira arratsaldeko 7etan Patxi Gorosabelen agindueta- ra. Taldeak iazko oinarria izango du. Hala ere, baliteke bajak egotea jokalaria batzuen ikasketak direla eta. Infantilak irailaren 16an hasiko dira entrenatzen.


## FUTBOLA Villa Arrasate

UDA taldearentzat izan da aurtengo Villa Arrasate txapelketa. Asteazkenean UDAk eta Mondrak jokaturako neurketan Atxabaltarrek 0 eta 1 irabazi zuten. Golegilea Jonan Larrinaga.



## ■ Jon Basurko

### ARRASATE SASKIBALOI TALDEKO LEHENDAKARIA



**T**eknikaren esparrua ederki ezagutzen badu ere, bere afizioak saskibaloian konzentratzen dira. Kirol honekiko duen zaletasunak, Arrasate Saskibaloi Taldeko zuzendaritza berriaren lehendakaritza betetzera bultzatu du. Ea, zorte handia daukaten.

1. Zein da zure horoskopoa? Geminis.
2. Sinestuna zara? Ez dut horretan gehiegi pentsatzen.
3. Animalia bihurtzekotan? Arranoa.

#### 4. Zure akats bat/gauza on bat?

Besteek esan beharko lukete hori.

#### 5. Zerk lotsarazten zaitu?

Euskal Herriko egoerak.

#### 6. Amets bat? Bakea

Euskal Herriarentzat eta ikusle asko saskibaloi taldearentzat.

#### 7. Zer kenduko zenuke mundutik?

Gorrotoa, gosea...

#### 8. Gertakizun historiko bat? Hizkuntzaren asmakizuna.

#### 9. Nor miresten duzu? Pertsona asko.

#### 10. Zeri diozu beldurra? Norberaren gainetik dauden gauzei, ezin zaielako aurre egin.

#### 11. Zertaz damutzen zara? Pertsonen huts egiteaz.

#### 12. Negar egin duzun azken aldia? Nire izeba hil zenean.

#### 13. Zer falta zaio Arrasateri? Itsasoa eta aisialdirako aktibitate gehiago.

#### 14. Eta zuri? Beharrezko ezer ere ez.

#### 15. Lanbidez aldatzekotan? Oraingo lanbide teknikoak ditut gustoko.

#### 16. Arrasateko gustoko toki bat?

Iturripe.

#### 17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Dena utzi eta bidaiatzea.

#### 18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Harrapatzen ditudan denak irakurtzen ditut.

#### 19. Gustoko janari bat? Abuztuan parrilan egindako sardinak.

#### 20. Liburu on bat? Atxagaren edozein.

#### 21. Filmerik onena/txarrena? *La naranja mecánica* / asko.

#### 22. Musika talderik onena/txarrena? Van Morrison / Kaxiano.

#### 23. Telebistako programarik onena/txarrena? Saskibaloi partiduak / asko.

#### 24. Egin dizuten oparirik politena? Kuadro bat.

#### 25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Saskibaloian, bizikletan, musika ere gustokoa dut.

#### 26. Oporretarako toki bat? Orio.

#### 27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Hautsa kendu.

#### 28. Gomendio bat? Ez egin inori zuri egitea nahi ez duzuna.

#### 29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Baietz sinestu nahi nuke.

#### 30. 200 milioi irabaziz gero? Etxe bat erosi eta Arrasate Saskibaloi Taldeari laguntza eman.



## PARDO estetika zentrua

**Udako kolorea mantentzeko eta hartutako kiloak kentzeko aukera bikaina!**

#### ■ Solarium-a dutxarekin

10 sesio + 1 doan = **8.000 Pta.!!!**

#### ■ Gorputzerako tratamenduak (Ostar)

Erreafirmatu, moldeatu eta bolumena gutxitu.  
Sesio bakoitza: **2.700 Pta.!!!**



Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎: 79 52 17 ARRASATE

muebles

ARKAZ

**Erakusketaren  
berrizketa**

**ALTZARIAK-DISEINUA  
APAINKETA**



**LARUNBAT  
ARRATSALDETAN  
ZABALIK!**

**ARETXABALETA**

**Araba Etorbidea, 20 • Tel. eta Faxe: 79 23 51**

# Garagartzako erretaularik zaharrena berritu dute Donostiako Artelekun

Garagartzako erretaularik preziatuena, berriro izango da ikusgai elizako absidean berriztate prozesu luze baten ondoren. Erretaula, auzoko patrioiaren historia kontatzen duen XVI. mendeko obra da. Kontserbazio egoera txarraren ondorioz Artelekuko errestauradoreek berriztatu dute eta Gipuzkoako beste hamar piezarekin batera ikusgai egongo da Donostian gaurtik aurrera. Hala ere, ez daitezela garagartzatarrak larritu, patrioiaren egunerako, San Migel egunerako, auzoko elizan ezarriko baita erretaula.

## 400. URTEURRENA

Errenazimentuko erretaula hau mende erdialdekoa da, 1550 urte ingurukoa, baina margotze lanak 1597an bukatu zirela jasotzen du erretaularen inskripzio batek. Beraz, lau mende bete ditu aurten plateresko estiloko pieza honek. Obra kalitate onekoa da bere osotasunean baina bere polikromiak aipamen berezia



“San Migel aingeru txarrak menperatzen”. Erretaularen erliebetariko bat.

merezi du. Margolaria Pablo de Urrutia arrasatearra izan zen eta benetan lan fina egin zuen. Xabier Martiarenak, berriztate lanen buruak azaldu duenez “polikromia oso elegantea da, motibo ezberdin asko-

rekin. Urre kolorea emateko *estofado* teknika, modelu ezberdinetan erabiltzen du artistak”.

## ALDARETIK ALBORATUTA

Gipuzkoan ezaugarri bereko

erretaula gutxi dago eta Leintz bailaran bakarra da Garagartzakoa. Azpialdean Santa Ageda, Santa Katalina eta Santa Luziaren gorputz erdiak agertzen dira. Gainean, San Migelen kondaira azaltzen duten lau erliebe eta erdian San Migelen irudia. Gainean, “San Migel aingeru txarrak menperatzen” erliebea eta erretaularen goiko puntan Jainko Aita.

Erretaularen oinarriko kokalekua absidearen erdia izan zen. 1787an ordea, Bergarako Erretmintegitik erretaula berria ekarri zen 3.000, erreal ordainduta eta San Migelena absideko albo baten ipini zen. Berria Jasokundeko Amabirginarena zela eta San Migelen irudia, erretaula orijinaletik kendu eta bertan jarri zen. Berriztapenak San Migel jatorrizko lekura itzuli du. Hala ere, erretaula aldamen baten ezarriko da. Erdiko erretaulan, San Migelen irudi berria ezarriko da, beraz, bi San Migel izango dituzte Garagartzan.



## URONDO Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76



JOSE M. LARRAÑAGA, ARRASATE MUSIKALEKO LEHENDAKARIA

## “Musika, buruaren eta mentalitatearen gimnasia da”

Otsailean Arrasate Musikaleko zuzendaritza batzordea aldatzeko hautaketak egin ziren. Horien ondorioz, zuzendaritza bere osotasunean berritu zen eta lehendakartzaren ardura Jose Mari Larrañaga eskoriatzarraren gain geratu zen. Asmo berriak aurrera ateratzeko garai polita, aurten, Arrasate Musikalek bere 25. urteurrena betetzen baitu.

**- Zein da zuzendaritza batzordearen lehenengo asmoa?**

- Zenbait arazo egon zen kontratuei dagokienez. Kontratazio ofizialik ez zegoen eta seguritate sozialik ez zen ordaintzen. Langileek egoera salatu zuten eta hori konpontzea izango da gure ardura. Hasteko, Arrasate Musikalek dituen zorrak ordaintzea da helburu nagusia.


**- Arlo ekonomikoa alde batera uzita, beste helbururik finkatu da?**

- Kultura musikala sortzea, garatzea eta plazaratzea da finkatu dugun helbururik aberatsena. Kirolariek euren fisikoa gimnasia eta ariketa ezberdinez lantzen duten bezala, musikak burua eta mentalitatea lantzen du, pertsonaren ahalmenak eta sentsibilitatea handituz. Kultura musikala indartzea da garrantzitsua, ez bakarrik kontzertuak antolatuz, baizik eta jendearengan musikarekiko interesa piztuz.

**- Ikasketak erregularizatu egin ditu Eusko Jaurlaritzak.**

- Bai, lege aldetik normalizatu egin dira baina erregularizazioa oso pobrea da irakasleen esanetan. Akademizismora jotzen da, arlo kulturala landu barik. Aurrera begira, erregularizazio hori edukiz bete dadin presionatuko dugu.

**- Arrasate Musikalek lokal berria**



**izango du hemendik gutxira?**

- Dugun lokalarekin konpon gaitzke, baina lokal berria edukitzea gustatuko litzaiguke klaseen kalitatea hobetzeko. Arazo bakarra ekonomikoa izango litzateke.

**- Udalaren laguntzaz gain, beste diru sarrerarik baduzue?**

- Udalaren dirulaguntza eta bazkideen kuotak izan dira orain arteko sarrerak. Iturri gehiago lortzeko hasi gara lanean, eta zenbait erakunderi eskatu diogu laguntza: kooperatibek duten Lan Sozialen Fondoari, Arrasateko industria batzuei, Aramaioko Udalari...

**- Urtebetetze berezia duzue aurten...**

- Bai, Arrasate Musikalek 25 urte betetzen ditu eta urtean zehar ekintza ezberdinak antolatuko ditugu. Arrasateko herriari eta Arrasate Musikalen sortze lanetan ibilitako jendeari omenaldi polita egitea gustatuko litzaiguke.

## aste gazte

### ■ BEKAK

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Europako gaien eta herrialde arteko lankidetzaren arloetan profesionalen espezializaziorako bekak. Epea: irailak 15.

### ■ LANA

Hona hemen udal batzutan bete beharreko lanpostu batzuk:

- Bergarako udalean, zoologo bat eta kimiko bat: irailak 7.
- Anoetako udalean, gizarte kultur suspertzailea. Epea: irailak 10.
- Ikaztegiatiko udalak idazkari kontu hartzailea. Epea: irailak 12.
- Kadreitako udalak, liburu-zain bat. Irailak 12.
- Buñuelgo mankomunitateak, 2 famili langile behar ditu. Epea: irailak 19.

### ■ IKASTAROAK

- INEMek geriatria laguntzaile ikastaro bat antolatu du Arrasaten, irailaren 8tik azaroaren 14ra. Izen ematea Arrasateko INEMen.
- Gazte Zerbitzuak antolatuta, salsa ikastaroa sakontze mailan. Irailaren 15ean hasi eta urriaren 15a arte. Hastapen mailako ikastaroa, urrirako dago aurrikusia. Izenematea Gazte Bulegoan.

### ■ LEHIAKETAK

- Zumarraga eta Urretxuko udalek, urteroko lehiaketak antolatu dituzte, modalitate ezberdinetan: narratiba eta poesiako Iparragirre saria, pintura, komiki, bertso paper eta argazki lehiaketa. Epea: irailak 26.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

**“Arrasate Musikalek 25 urte betetzen ditu aurten eta ekintza ugari antolatu ditugu”**

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Pisua salgai. Bizkaia etorbidea, 14-3.ezk. Tel.: 79 22 92.

• Roneoko etxeetan pisua salgai. Tel.: 79 88 13. Gauean.

• Lekeitioko alde zaharrean 70m<sup>2</sup>ko atikoa salgai. 2 logela, komuna, sukaldia, ganbara eta su bajuko egongela. Gutziz jantzita. 13 milioi. Tel.: (94) 684 02 56.

### 3. Errentan emateko

• Laredon apartamentua alokatzen da abuztuaren azken astean eta irailean. Tel.: 79 31 47.

• Santo Domingo de la Calzadan 3 logelako pisua alokatzen da abuztuan. Tel.: 79 91 64. Bulego orduetan.

• Jantzitako pisua alokatzen da Zurgalden. Tel.: 79 27 15 uztailako gauean eta (946) 84 24 06 abuztuan.

• Erguinen pisua alokatzen da. Tel.: 77 00 29.

• Ikasleei pisua alokatzeko daukat. Tel.: 79 00 34.

• Ikasleendako pisua Ferixalekun. Tel.: 79 12 81.

### 4. Errentan hartzeko

• Pisua alokatu nahi dugu Arrasaten. Gurekin etxe hori alokatu nahiko lukeen bi edo hiru lagun ere behar ditugu. Tel.: 88 52 71. Oihana.

• Lau gelako pisua behar dugu Arrasaten. Tel.: 46 01 23. Aitor. Iluntzean deitu.

• Abuztuan Torrevejian apartamentua alokatu nahi dut lehenengo hamabostaldian. Tel.: 79 57 79.

• Bikotea pisu bila Arrasaten. Tel.: 79 76 88.

### 5. Etxe konpartituak

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko Betatik 9etara 77 04 60 telefonora. Margari.

• Arrasaten pisua konpartituko nuke gela bat alokatuz. Tel.: 51 32 40. Tito.

• Arrasaten igogailua duen pisua osatzeko pertsona erresponzablea behar da. Tel.: 79 23 58. Gaeuz.

• Bi lagun gara eta etxe baten gela

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

bat behar dugu. Tel.: 51 32 40 Tito eta 52 48 79 Asier.

• Etxe konpartitu nahi dut Arrasaten. Tel.: 79 95 11. Kieran.

• Donostian pisua osatzeko lagun bat behar dugu. Tel.: (94) 683 15 30.

• Roneoko etxeetan garajea alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

## LOKALAK

### 14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48 zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Janari denda errentan eman nahi dut. Tel.: 79 92 84.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 58 22.

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

• Abuztuan pertsona nagusiak zainzteko gertu. Orduka edo egun osoz. Tel.: 79 45 87.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zainzteko. Tel.: 79 07 73.

• Emakumea gertu pertsona nagusiak zainzteko. Tel.: 79 05 90.

• Zazpi urteko esperientzia duen neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 87 40.

• Emakumea prest pertsona nagusiak edo gaisoak eta baita etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 40 72.

• Neska euskalduna gertu edozein lan egiteko. Tel.: 79 48 97 eta 79 81 25. Arratsaldez.

• Esperientziadun emakumea prest goizez pertsona nagusiak zainzteko. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Esperientziadun ileapaintzailea lan egiteko prest. Manikura, pedikura, depilazioa. Diplomaduna. *Pivot point* tituloduna. Tel.: 79 03 94.

### 18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 45 73. Iluntzeko Betatik aurrera.

• Datorren kurtsuan ingeleseko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 79 09 11.

• Esperientziadun jostuna behar da denda baten lan egiteko. Tel.: 909 27 40 95. Goizez dei egin.

• San Viator ikastolak 97-98 ikasturterako goi-mailako injinerua behar du. Informatikoa izanez gero hobe. Euskara jakitea ezinbestekoa da. Bidali kurrikuluma Arrasateko 90. postakutxatilara.

• Umeak zainzteko eta etxeko lanak egiteko andra euskaldun bat behar da (25-44 urte bitartekoa). Tel.: 79 68 67. Deitu arratsaldeko 4etatik 8etara.

• Etxeko lanetarako eta ume bat zainzteko neska behar dugu. Tel.: 77 08 88 lana. 79 84 89 etxea.

• Emakume bat behar dugu bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 95 05.

• Emakumea behar dut etxeko lanak egin eta umeak zainzteko. Tel.: 77 00 86.

### 19. Bestelakoak

• Lanak euskaratu edota ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz, gazteleraz eta ingeleseko itzulpenak egiten dira. Tel.: 79 79 12. Mila.

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• OHO eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Esperientzia eta merke. Tel.: 79 47 35.

• Neska euskaldunak udan klase partikularrak emango lituzke. OHO, REM, edo BUP. Tel.: 79 51 19.

• Irakasle esperientziadunak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz zein erdaraz klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 77 04 98.

• Esperientziadun neska batek klase partikularrak emango lituzke, euskaraz nahiz erdaraz. OHO, UBI. Tel.: 79 86 06.

• UBlra arteko klase partikularrak ematen dira. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 46 75. Amaia.

• Injenerutza kimikoak matematika, marrazketa, kimika eta fisikako klaseak emateko gertu. Tel.: 79 25 85.

• Esperientziadun neska klase partikularrak emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

• Magisteritza daukat eta klase partikularrak emango nituzke Musakolan. Tel.: 79 35 24.

• OHO, DBH etea beste zenbait ikasgaietako klase partikularrak ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

• Irakasle tituloduna eskola partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 94 04.

**21. Eskerak**

• Kontabilitate eta matematika finantzieroko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 48 99.

• Irailaren 8tik 26ra arte frantseseko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 30 39.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Ford Scort 1.3 salgai. SS-T. Egoera onean. Prezioa: 120.000 pta. Tel.: 79 56 82.

• Ford Orion GLD 1.600 salgai. 300.000 pta. negoziagarriak. Tel.: 76 71 12.

• Opel Corsa TR 1.200 autoa salgai. Merkea. Tel.: 79 79 92.

• Dervi Vamos motorra salgai. Tel.: 79 73 42. Beatriz.

• Bi motor salgai. Suzuki DR Big 50. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 34 14. Aitzol.

• Vespa Iris 200 motorra salgai. BIAK. Egoera onean eta merke. Tel.: 71 51 29.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• Errefomagatik solariario profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta. Tel.: 77 04 61.

• Ciclon Plus aspiragailua salduko nuke. Erreferentzia: AM-510- Fagor. Tel.: 79 50 96. Alberto.

• Logela osoa salgai. Sofa eta koltxoia opari. Tel.: 79 45 87.

• Bigarren eskuko akordeoia salgai. 96 baju eta egoera onean. Atrila eta eramateko karrotxoa batera saltzen da. Tel.: 79 73 18. Ikerna.

• Prestige modelo Alpen-Kreuser karrodenda salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 61 82.

• Arrue Olimpia umeendako kotxea salgai. Egoera onean eta merke. Tel.: 79 74 09.

• Tabernaroko 4 mahai eta 16 aulki salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Tel.: 79 74 09.

• Ezkontzarako soinekoa salgai. 44 talakoa. Aurtengoa. Merkea. Tel.: 71 51 29.

• Hozkailu bat eta sukalde bat salgai. Ikerriak daude. Tel.: 79 44 86.

**HARREMANAK**

**35. Kontaktuak**

• Somorrostro (Muskiz) edo inguruan ikastera doan jende bila nabil. Tel.: 79 98 28.



**Pavimentos AGR**

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehoiak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak  
Eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta almagena:**  
Kale Txiki, 3 - behea  
Tel.: 77 11 20  
Faxa: 77 11 20  
ARRASATE

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta  
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDLIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



**LASAGABASTER**


**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

## ■ Horoskopoa

- **Aries** Nork jasango du zure umore txarra?
- **Taurus** Eztabaidak entzutea gustatzen zaizu, baina ez iritzia ematea.
- **Gemini** Mezu itxaropentsu bat jasoko duzu egunotan.
- **Cancer** Pazientzia falta zaizu eta hori ezinbestekoa da.
- **Leo** Denak zure esklabo direla uste duzu.
- **Virgo** Utzi kafea denboraldi baterako. Gorputzak eskertuko ditu.
- **Libra** Gimnasia apur bat zer moduz? Iraila horretarako aproposa da.
- **Scorpio** Ileapaintzaileak gorrotoa dizula uste dut.
- **Sagittarius** Begiratzeko modukoa zara eta hori ondo dakizu.
- **Capricorn** Alaia eta berritsua. Baina batez ere berritsua zara.
- **Aquarius** Gauzak datozen bezala onartu behar dira.
- **Piscis** Despistatuegia zara gehienguan. Kontuz ibili.

## ■ Gurutzegrama



JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Filofofi gaitan aditua edo jakintsua. 8. Nekatu. 9. Musika-eskalako seigarren nota. 10. Afrikako lakua, Uganda eta Zaire artean. 12. Singularreko lehen pertsonaren izernordaina. 13. (Ald.) Ikuitu, korta. 15. Izakiek duten izateko tankera, era berezi apartekoa. 16. Argona. 17. Superlatiboa adierazten duen atzizkia. 18. Oiloak gauz lo egitera joaten diren haga gurutzatuzko tokia. 19. Eguzkia hartzeko terraza edo antzeko lekua.

**Bertikalak** 1. *Corazón de Encina* kultur etxeko lehendakariaren abizena. 2. Amerikan urteak egin ondoren herrira etorritako diruduna. 3. Bi pare. 4. Eskultura-lana, artikuluz osatua. 5. Lursailen arteko muga. 6. Zerbait ur-azalean geratu, hondoratu gabe. 7. Joan aditzaren erroa. 11. Alfabetoko laugarren letraren izena. 14. (Ald.) Euskal mitologiako emakumezko jainua, gainerako jainuen buru. 18. Hortz eta haginak inguratu eta finkatzen dituen haragia.

**Horizontalak:** 1. Filosofo. 8. Unatu. 9. La. 10. Eduardo. 12. Ni. 13. (Ald.) Itegi. 15. Tailu. 16. Ar. 17. En. 18. Ora. 19. Solartum.

Mart. 18. O!

**Bertikalak:** 1. Fuentes. 2. Indiano. 3. Lau. 4. Otailua. 5. Surgu. 6. Flotatu. 7. Oa. 11. De. 14. (Ald.)



# LORAMENDIN

- Adidas
- Nike
- Think Pink
- Reebok
- Rip Curl
- Avia


## %30

# BEHERAPENAK!

## %20

## ZAPATILAK

San Andresen eta Garibaien



ATBren itxura apur bat berritzeko, teknikariak programen sarrera eta sintonia berriak egiten ari dira.

## Arrasate Irratia hasi da berbetan

Astelehenean hasi ziren Arrasate Irratiaren emanaldiak.

Oraindik uda giroan gaudela eta, herriko irratia ere uda parteko irratsaioekin jarraituko du. Beraz, lehenengo hamabostaldian Gerizpean izeneko saioa eskainiko dute. Irratsaioa goizeko 9etan hasten da eta 11etan bukatu. Tarte horretan Arrasateko, inguruko herrietako, Euskal Herriko eta munduko albisteen errepasoa egiten da. Horrez gain, iritzi artikulua bat irakurri eta herriko albiste bat zabal jorratzen da. Zelan ez, musika ere izango du tarterik.

Baina bada beste nobedaderik. Irailaren 1az geroztik irratia esatari berria du Arrasate Irratiak: Garikoitz Kortazar eskoriatzarra. Aitziber Aranburuzabalarekin batera, denen gustoko irratsaioak egiten saiatuko da Garikoitz. Ohiko laguntzaileek ere jarraituko dute irratian, eta bigarren hamabostalditik aurrera euren entzuteko aukera egongo da.

## Irailean albistegiak, baina urritik aurrera programak ere bai ATBn

Irailaren 1ean hasi ziren Arrasate Telebistako informatiboak. Beti bezala, herrian gertatutakoaren berri izango duzue arratsaldeko 8etatik aurrera. Ohiko saioak, berriz, urrian hasiko dira (Mondrasport, Astebete...)

Baina ohiko saioez gain, ATBn prestatzen ari dira saio berriak ere. Batzuek laster ikusiko dute argia, eta beste batzuk beranduago pantailaratuko dira.

Kazetariak saioak prestatzen, eta teknikariak pro-

gramei sarrera emango dieten kareta eta sintonia berriak prestatzen ari dira.

Beti bezala, ez ahaztu ideien bat baduzu edo programaren bat egin nahi baduzu ATBko atek zabal zabalk dituzula.

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen,  
astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99

**ZARAYTZ  
ALTZARIAK**

Olarte kalea, 35  
ARRASATE  
Tel.: 79 28 44



**U**rteroko Arantzazurako arrasatearren erromesaldia egingo da hilaren 14ean. Aipatutako egunean, eguraldiak lagundu edo ez, ehundaka lagunek hartuko dute Arantzazurako bidea. Oinez joango dira batzuk; bes-

te askok, berriz, autobusez edo autoz egingo du ibilbidea.

Nahiz eta egun seinalatua ez izan, Arantzazura joatea ohitura zabaldua izan da eta gaur egun ere horrela da. Gaurko argazki zaharra esandakoaren lekuko. Ez dugu jakiterik izan argazkiko lau lagunek zein egunetan, zergatik eta

zela bildu ziren Arantzazun. Soinean daramaten arropei begiratuaz gero, gauza bakarra geratzen da argi samar, ez zirela oinez joan.

Atzealdeko makinak erakusten duenez, obretan zegoen Arantzazu lau lagun horiek bertara joan zirenean. Ezkerretik hasita, honako hauek

dira: Bixente Uribecheberria, Gregorio Guridi "Munar", Iberdueroko arduraduna zen Aurelio, eta Uribe baserriko Kasimiro Mondragon.

Argazkia: J. M. Lasagabaster.  
Informazioa: Josu Otaui.

## AEDk egun erdirako dinamizatzaile bat kontratatu behar du

**Eginkizunak: EUSKALAN eta EKIN EMAKUMEAK elkarteak dinamizatzea.**

Hautaketa probetan parte hartu gura izanez gero, bidali curriculuma AEDra, (Pablo Uranga, 4 • 20.500 ARRASATE) irailaren 19a baino lehen.

Informazio gehiagorako dei egin 77 12 28 telefonora edo etorri Pablo Uranga, 6an ditugun bulegora.



# ARRASATEKO ERDU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIAK, EGA eta ALFABETATZE

Matrikula epea irailak 26

Beka sistema

Informazioa eta matrikula: ERDU AEK EUSKALTEGIA  
Garibai kalea 14, 3 (Sindikatu etxea) • Tel.: 77 03 69  
Udalaren laguntzaz



**EUSKARA  
GALDUZ GERO  
AKABO  
GURE HERRIA**

*Izena eman*

**dek**

**EUSKALTEGI ETA BARNETEGIETAN** (FORU eta ONDARROAN, T.F. 94/625 35 9)

# Truke Operazioa




## Zure ametsak trukatzen ditugu!




**Ekar ezazu koltxoi zaharra... eta 10.000 Pta. arte deskontatuko dizugu zure atsedena sistema berria**

**FLEX**



## Eskeintzen dizugu

### Amets zoriontsuak



## Prezio hoberenean



Centro Hogar Muebles Zigarrola 1 ARRASATE



Amuebladora Mondragonesa



a.eme. interiores Garibai 1 ARRASATE